

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko uztailaren 11. IX. urtea. 2.626. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Parot Doktrina epaitzeko aukera izango da Trianguloa plazan, etzi

Tolosara iritsiko da Herrira-k antolatutako 'Herritarron epaia' egitasmoa; gizarteak duen borondatea islatu nahi da liburuan **02**

Bi egunez luzatuko da Tolosako Skate Txapelketa

Hirugarrenez antolatu du Tolosako Skate Taldeak lehiaketa; entrenamendu libreekin bihar, 18:00etan, emango diote hasiera **03**

Hitza pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dira asteburuan

Adunako Transernio pilota txapelketa ere aurrera doa eta herriko pilotalekuan jokatuko dituzte partidak **05**

'Made in Tolosa' azoka bereziak musika eta afaria ere izango ditu

Hilaren 20an izango da Tolosako BOX.A arte elkarteak antolatu duen hirugarren azoka **03**



→ **Barazkiak landatzen hasi dira.** Tolosako Udalak lurreamendi egoitzaren ondoko lurretan egokitu dituen 81 baratzeetan lanean hasteko moduan daude erabiltzaileak; lurra egokitzen ari dira batzuk, eta beste batzuek lehen barazkiak landatuak dituzte. Baratze Parkea adin ezberdinetako pertsonen bilgune izango da **06**

Peroteko jabeek epaiketa atzeratzea lortu dute

Langileak etsi eta enpresak eginiko eskaintza onartzea dela nagusien asmoa adierazi du Mikel Zabaleta ELA sindikatuko arduradunak **07**



Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa



Sari mundialak!





Pasa den maiatzaren 8an 'Plazak bete' egitasmoa ospatu zuen Herrira-k, eta Pello Odriozola gogoan izan zuten Tolosako giza katean. ITZEA URKIZU

Herritarrek Parot Doktrina epaitzeko aukera izango dute larunbatean

Ekainean Tafallan hasi zen egitasmoa, Euskal Herriko 80 herritatik pasako da, irailaren 14an Iruñera iritsi arte

Itzea Urkizu

197/2006 doktrinari, edo Parot Doktrinari, beren epaia eman ahal izango diote herritarrek, larunbat honetan Tolosako Trianguloa plazatik pasako den *Herritarren epaia* egitasmoaren bidez.

Herrira mugimenduak antolatuta, pasa den ekainaren 8an abiarazi zuten, irailera bitarte Euskal Herriko 80 herritatik igaroko den ibilbidea: «Ekimen ibiltari hau, gizartearen borondatearen testigantza izango da, herriz herri adierazia, eta Europako erakundeei nahiz nazioarteko komunitateari zuzendua», nabarmen-

du dute Tolosaldeko Herrira-ko arduradunek.

Horrela beraz, liburu erraldoi bateko orri zuriak herritarrek betetzea izango da egitasmoaren funtsa, euskal gizartearen iritzia agintariei helarazteko, eta doktrina indargabetzeko.

Herritarren epaia Tafallan hasitearen arrazoia, Ines Del Rio presoaren kasua da. Pasa den martxoaren 20an, Europako Giza Eskubideen Auzitegiko Aretoko Nagusiak ahozko epaiketa egin zuten, Ines Del Rio tafallarraren kasua berriz aztertzeko.

Aurretik ere, 2012ko uztailaren 10ean, Estrasburgoko Auzitegiak Del Rio aske uzteko agindua eman zuen, eta 197/2006 doktrinak Giza Eskubideen Europako Konbentzioa urratzen zuela ebazti zuen. Bere aldetik, Espainiako Gobernuak ez zuen agindua bete, eta errekurtsioa aurkeztu zuen, gainera. Orain, behin betiko

epaiaren zain dago Del Rio, eta hilabete gutxi barru ezagutaraziko dute erabakia.

2008. urtean Del Rio kartzelatik ateratzeko zen arren, espetxean jarraitzen du Parot Doktrina medio, eta Herrira mugimenduaren iritziz, «doktrina honek zuzengabeki luzatzen dizkie zigorrak, kartzelatik ateratzeko data zehaztua duten presoei». Gaur egun, 70 euskal preso daude egoera berean.

Horietako bat da, hain zuzen, Pello Odriozola tolosarra. 2008. urtean zigorra bete zuen arren, 197/2006 doktrina aplikatu, eta hamar urte gehiago pasa beharko ditu kartzelan.

Herrira mugimenduaren iritziz, «martxoaren 20ko epaiketa saioak agerian utzi zuen berriz, euskal gizartearen gehiengoak salbuespeneko espetxe politiken kontra dagoela; 197/2006 doktrina indargabetzearen alde dagojende

gehiena, esparru politiko, sindikal nahiz sozialean, eta baita eremu juridikoan ere».

Horrela, beraz, urte osoan barrera Pello Odriozolari atxikimendua erakutsiz Tolosan antolatzen diren hamaika egitasmorekin bat egingo du, larunbat goizean Trianguloa plazatik pasako den egitasmo ibiltariak ere.

Herriaren hitza agintariei

11:00etatik 13:00era bitarte, Trianguloa plazan ospatuko dute *Herritarren epaia*.

Tolosako eta Tolosaldeko hainbat eragilek ere bat egin dute, gainera, egitasmoarekin, eta beraz, bertsolariak, dantzariak, kantariak, herri kirolariak nahiz graffiteroak beren jardunean ariko

EGITARAUA

- **11:00.** Hasiera, Trianguloa plazan.
- **11:15.** Bertsolarien saioa.
- **11:30.** Lasto altxatze erakustaldia.
- **11:45.** Ubeda anaien kantaldia.
- **12:00.** Dantza saioa.
- **12:15.** Kike Amonarrizen saioa.
- **12:30.** Gazteluarren eskutik, herri kirolak.
- **12:45.** Maialen eta Ane zizurkildarren kantaldia.
- **13:00.** Argazkia.
- **Goiz osoan,** Pintxoak eta edaria. Graffiteroak.

dira auzi honen alde. Eragileekin batera, ordea, herritarrek ere beren ekarpena egiteko aukera izango dute.

Horretarako, Euskal Herri osoa zeharkatzen ari den liburu handi bat jarriko dute Trianguloa plazan, eta herritarrek Parot Doktrina epaitzeko aukera izango dute, nahi duten moduan: «Zerbait idatziz, argazkiak itsasiz nahiz marraztuz», azaldu dute Tolosaldeko Herrira-ko kideek.

Egitasmoaren izenarekin bat eginez, euskal herritarren epai guztiak bildu egingo dituzte, eta datorren irailaren 14an Iruñeko Anaitasunan ospatuko duten ekitaldian epaiaren testua osatu egingo dute. Ondoren, bertako, Europako nahiz nazioarteko erakunde, komunitate eta agintariei «mezu argia» bidaliko diete: «Konponbidearen alde egiteko garaia da, eman diezaiogun aukera bat bakeari», diote Herrira-koek.

Larunbateko egitasmoa giro-tze aldera, berriz, Tolosaldeko Herrira-k Parot Doktrinaren inguruko erakusketa ibiltaria antolatu du. Tolosan izango da gaur, 18:30ean, eta bihar, ordu berean, Ibarren.

Antolatzaileek, azkenik, herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte egitasmoan parte hartze- ra, eta «denon artean, herriz herri, giza eskubideen errespetuaren eta salbuespeneko espetxe politiken amaieraren aldeko aldarri hau egitera».

Pello Odriozola tolosarrak mende laurdena darama espetxean

➔ Pello Odriozola 1988ko urtarrilaren 28an atxilotu zuen Espainiako Polizia Nazionalak; 25 urte eta erdi betetzera doa, beraz, kartzelan. Mende laurden honetan, Alcalá de Henares, Valdemoro, Herrera de la Mancha, Ourense nahiz Lugoko Bonxe espetxeetan izan da zigorra betetzen, eta azken bost urteak Zuerako kartzelan eman ditu, Zaragozan.

Odriozolak, ordea, duela bost urte bete zuen bere zigorra; 2008ko uztailaren 2an atera beharko zukeen kartzelatik. Parot Doktrina aplikatu ziotenetako bat izan zen, tolosarra, eta hamar urtez luzatu zioten espetxe zigorra. Gauzak horrela, 2018ko urtarrilaren 19a bitarte egon beharko du kartzelan.

Bere gertukoek hamaika aldarrikapen egin izan dituzte, eta besteak beste, «bizi arteko zigorra» aplikatu diotela salatzen dute: «Espainian ez dago biziarteko zigorra ezarrita, baina praktikan, ezarrita dagoen estatuetan baino urte gehiago pasatzen dituzte presoek espetxean».

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Hauxe Garbitasunak. Garbiketako orokorrak: etxeak, bulegoak,.... Aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 15 24 94 telefono zenbakira.

Etzeko lanak. Goizetan, etzeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992.

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Musikak eta afariak borobilduko du 'Made in Tolosa'

BOX.A arte elkarteak hirugarren azoka antolatu du hilaren 20rako, eta osatu dute jada, egitaraua

I. Urkizu

BOX.A arte elkarteak hirugarren azoka berezia antolatu du uztailaren 20rako, eta osatu dute jada, egitaraua. Musika eta afaria izango dira, egitasmoa borobilduko dutenak.

Elkartearen funtsa den artea beti abiapuntu izan duten arren, azoka honen kasuan eskuz eginitako gauzen erakusleho bilakatu nahi izan dute, San Esteban auzoan duten txokoa.

Eskuz egindako gauza hauek, gainera, Tolosan egindakoak izatea bilatu dute antolatzaileek, eta horrela, *Made in Tolosa*, %100 Tolosan egina izenburupean aurkeztu dute ekimena; Tolosaldeko herriarrek ere postua jartzeko aukera izango dute. Honen harira, doakoa izango da azokan postua jartzea, eta gu@boxagara.com

helbidean eman beharko da izena.

Azokan erakusgai izango diren produktuak askotarikoak izango dira: artea, artisautza, janaria, osagarriak nahiz gauza bitxiak egiten dituztenek postua jartzeko aukera izango dute, beraz.

Azkenik, BOX.A arte elkarteak antolatzaileek azokaren kokalekua zehaztu nahi izan dute, hilaren 20an postuak ikustera joan nahi dutenentzat. San Esteban auzoko 19. zenbakian izango dira postuak, eta auto garajetik aurrera joanda iritsi daitezke.

MADE IN TOLOSA

UZTAILAK 20, LARUNBATA

■ **16:00-18:00.** Azoka irekiko dute, eta bitartean, haur eta gaztetxoentzat txapa tailerra izango da.

■ **18:00-20:00.** Zuzeneko musika eskainiko dute musikariek, postuen alboan.

■ **21:00-22:00.** Afaria egingo dute, paellarekin.

■ **22:00-01:00.** Bideoklip gaua, azoka amaitzeko.

Kantu jirako entsegua, gaur iluntzean

Uztailaren 24an izango da hurrengo entsegua, uztailaren 27an izango den kantu jira prestatzeko

I. Urkizu

Hilabeteroko azken larunbatean kantu jira egiten dute Tolosan, eta uztailako hirtzordua hilaren 27an izango da.

Kantu jira prestatzeko lehen entsegua gaur bertan izango da, 20:00etan Antonio Maria Labaien kultur etxeko areto nagusian. Bigarren saioa, berriz, uztailaren 24an egingo dute, leku eta ordu berean.

Uztailako kantu jiran Tolosako txistulari bateranoak ere izango dira, eta entsegetan kalean abestu beharreko piezak landuko dituzte. Antolatzaileek gogora ekarri nahi dute entseguak irekiak direla.



Skate park-aren urteurrena ospatzeko jaia egin zuten pasa den martxoan. ASIER IMAZ

Bi egunez luzatuko da Tolosako hirugarren skate txapelketa, kanpaldiarekin

Bihar iluntzean barbakoa egingo dute, eta skate txapelketa larunbat arratsaldean izango da

Itzea Urkizu

Hirugarrenez antolatu du aurretik, Tolosako Skate Taldeak, Tolosako skate txapelketa. Lehenengoz luzatuko dute, ordea, skate zaleen jaia bi egunez: barbakoa eta kanpaldia egingo dute bihar iluntzean, eta egitasmo nagusienak larunbatean izango dira.

Urtez urte parte hartzaile gehiago elkartzen dira Usabalgo kiroldegia ondo skate parkean, txapelketan aritzeko, eta aurretik ere, nesken eta mutilen

kategoriak bereziko dituzte. Sariari dagokienez gainera, guztira 400 euro banatuko dituzte antolatzaileek, babesleen laguntzaz, ordain saritan. Horrez gain, skate materiala eta oroigarriak ere banatuko dizkiete.

Txapelketaren aurretik, ordea, eta skate-az lasaiago gozatzeko, bihar arratsaldean hasiko dira zaleak, skate entrenamendu libreak egiten, musikaz lagunduta. Jarraian kanpin dendak jarriko dituzte, eta barbakoa egingo dute afaltzeko.

Larunbatean, berriz, 11:00etatik aurrera jolasekin hasiko dira, eta bazkariaren ondoren, 15:00etan hasiko da txapelketa ofiziala. Sariak banatutakoan, berriz, Kikara tabernan jarraituko dute festarekin, gauean, eta DJen musikaz lagundurik, opari bereziak izango dira.

TOLOSAKO III. SKATE TXAPELKETA

UZTAILAK 12, BIHAR

■ **18:00.** Entrenamendu libreak egiteko aukera izango da, musikarekin, eta gauean barbakoa afalduko dute. Ondoren, kanpaldia egingo dute.

UZTAILAK 13, ETZI

■ **11:00.** Hasiera, joko eta jarduerekin.
 ■ **13:30.** Bazkaria.
 ■ **15:00.** Skate txapelketaren hasiera.
 ■ **20:00.** Sari banaketa izango da. Skate materiala eta oroigarriak gain, 400 euro banatuko dituzte, guztira, ordain saritan.
 ■ **23:00.** Festa egingo dute Kikara tabernan, eta DJen musikaz gain, zozketak, opari bereziak eta antzekoak izango dira.

Patxi Amantegi
 Tolosaldea Txukuneko bozeramailearekin
ZUZENKO ELKARRIZKETA

Uztailak 18, osteguna, 20:00etan

Bidali zure galderak:
tolosaldean@hitza.info
 edo

[@hizatolosaldea](https://twitter.com/hizatolosaldea)





Intxurre Pilota Eskolakoek denboraldiari agur esan diote afari baten inguruan elkartuta. HITZA

Pilotariak emaitzak ospatuz agurtu dute denboraldia

Lortutako emaitzak goaipatzeaz gain, pilotarien lana eta ahalegina azpimarratu dute eskolatik

Erredakzioa

Intxurre Pilota Eskolako pilotariak amaiera eman diote 2012-2013 denboraldiari. Oraindik, partida batzuk zintzilik gelditzen zaizkie pilotari batzuei, baina hala eta guztiz ere, iragan ostiralean afari ederrarekin eman zioten ofizialki amaiera denboraldiari. Pilota eskolako arduradunak, pilotariak eta gurasoak elkartu ziren Altxoko Elordi Elkartearen.

Aurten, Intxurre Pilota Eskolan 39 neska-mutil aritu dira jo eta su. Mutilak eskuz eta neskak palaz aritu dira, eta emaitza esanguru-

ratsuak lortu dituzte: «Hasteko, urte osoan egindako lana eta ahalegina nabarmendu behar da, eta baita lortutako emaitzak ere». Nesketan, infantil mailan, Naroa Olano eta Sara Agirrearen Gipuzkoako txapeladunorde gelditu dira; jubenetan, Mari Murua eta Maialen Senperenaren Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak lortu dituzte, eta Maialenek berak Maite Tolosarekin Udaberri saria irabazi du.

Mutiletan ere ez dira atzera geratu, eta infantilen urte bikaina aipatu dute pilota eskolatik, Gipuzkoako Udaberri sarian lehen bi postuetan gelditu direlarik. Gorostidi eta Alonsok nagusien hirugarren mailako Udaberri saria irabazi dute; Beñat Urretabizkaiak Zumarraga eta Zizurko lau terdiko txapelak jantzi ditu eta Getxokoa bi-bitara; eta Iñaki Artolak nagusien mailako buruz bu-

ruko Gipuzkoa eta GRAVNe txapelak ez ezik Zaldibarko lau terdikoa eta amaitu berri den Miguel Soroa txapelketakoak jantzi ditu.

Gabonetako Topaketaren arrakasta ere azpimarratu dute alegiarrek: «Abaltzisketa, Alegia, Altxo, Amezketa eta Ikaztegiako ia 100 neska-mutilek hartu dute parte. Hau dena ezinezkoak litzateke gurasoen jarrera eta laguntza, eta Alegi, Altxo eta Ikaztegiako udalen eta Calcinor enpresaren laguntzarik gabe. Gustura gaude, nola ez bada, Intxurreko arduradunok eduki dugun giroarekin eta pilotari gehienek eduki duten grinarekin». Atsedean apur bat hartzeko garaia iritsi zaie orain, irailen indar berriuta heltzeko ekitaldi berriari.

Uda ondo pasatzeko gonbita luzatu dute, euren leloa ahaztu gabe: «Gurea, Pilota!».

Ikaztegiako Jaietako bazkari eta afarietako txartelak salgai

Herriko festak abuztuaren 8tik 11ra bitarte ospatuko dituzte; paella erraldoia egingo da aurten ere

A. Imaz Ikaztegieta

Ikaztegiako Udaletik herritarrentzat jaien inguruko hainbat ohar zabaldu dituzte. Lehenik eta behin, festak abuztuaren 8tik 11ra egingo dituztela esan dute, eta ondoren, bazkari eta afarietako txartelak dagoeneko salgai daudela jakinarazi dute, eta modu horretan egongo dira uztailaren 29ra bitarte, Toki-Alai eta Ostatu tabernetan. Txartelak garaz erosteko eskatu dute udaletik, izan ere, epez kanpo dabilenari ez zaio salduko.

Lehen afaria, euskal preso eta iheslarien aldekoa izango da,

abuztuaren 8an, 21:00etan herriko plazan. Afari horretako txartelak 15 eurotan jarri dituzte salgai.

Umeei zuzendutako bazkaria abuztuaren 9an izango da. Arroza oilaskoarekin eta postreerako izozkia izango dute. Bazkaria dohainik bada ere, tiketak hartzea beharrezkoa izango da, eta udaletik azaldu dituzte, txartelik ez duen haurrari ez diote bazkaririk emango.

Herri afaria abuztuaren 11n izango da, 21:00etan, herriko plazan. Txartelak kasu honetan 23 eurotan jarri dituzte.

Tarlean, abuztuaren 10ean, Kuadrillen bazkaria ospatuko dute. Aurreko urteetan bezala paella erraldoia egin nahi da, eta kuadrilla bakoitzetik bi partaidetik 11:00etarako plazan egon beharko dute. Ondoren, garbiketarako beste bi kide jarri beharko ditu kuadrilla bakoitzak. Txartelak 12 eurotan jarri dituzte.

Alegiako III. Pilota Txapelketa larunbatean

A. Imaz Alegia

Alegiako jai alternatiiboak gaur hasiko dira, eta ofizialak bihar. Pilota eskolatik Alegiako III. Pilota Txapelketaren finalak larunbate-

an izango direla gogoratu dute. Partidak 18:00etan hasiko dira pilotalekuan eta herritar guztiak nahiz egun hauetan jaietara joango direnak bertara gonbidatu dituzte pilota eskolatik.



Aprobetxatu Ibarako Xepla Elkarte bazkide izateko aukera paregabea!

Diru sarrerarik eman gabe!

Informa zaitez 610 744 703 telefono zenbakian.

Mauka

Garraiatu eta mantendu zure janaria freskoago 5 super hauekin!



www.mauka.eu

Sartu gure webgunean

hitza info

tolosaldea.hitza.info

info



Prezioak: Tribuna 15 €, Beste lekuetan: 10 €, Haurrak (8 urte arte): 5 € • **Sarrerak salgai:** Ahora Dendan, 66 Tabernan, Ikatza Tabernan eta Beasaingo Tti-tta Tabernan.

REALA-TOULOUSE

Futbol partida

Beasaingo Loinaz Futbol Zelaian

Uztailak 20, Larunbata 19:00etan



Hitza eta Transernio pilota txapelketen partidak

Adunako pilotalekuan larunbatean eta igandean jokatuko dira partidak, 10:00etatik aurrera



Aurreko edizioetako Transernio pilota txapelketaren partida. I.G.L.

Asier Imaz

Hitza Pilota Txapelketa finalerdietan dago. Kadeteen lehiak jokatuko dira, bihar eta igandean beste mailatako lehiak jokatuko dira. Ostiralean, 17:00etan, alebilen finalerdia jokatuko dira Alkizan. Egun berean, 19:00etan, benjaminen kanporaketak ikusteko aukera egongo da. Benjaminen kasuan, bi mailatan banatu dituzte pilotariak. A mailako gaztetxo finalerdia Albizturren jokatuko dira, eta B mailakoena, Bidegoianen.

Hitza Pilota Txapelketako azken finalerdia igandean izango dira, Altzoko pilotalekuan, 10:00etatik aurrera. Kasu honetan, infantilen lehiak jokatuko dira. Finalak, azkenik, uztailaren 20an jokatuko dira.

Transernioko partidak

Adunako pilota eskolaren txapelketa aurrera doa. Iragan asteburuan partida ugari jokatuko zituzten Adunan, eta datorrena ere,

norgehiagokaz beterik aurkeztu dute. Larunbatean eta igandean 10:00etan hasiko dira pilota jaialdiak, Adunako pilotalekuan. Hilaren 13an sei partida jokatuko dira, eta hilaren 14ean, bost. Eskualdeko pilotari gaztetxo ugari hartuko dute parte asteburuko pilota festan. Hitza txapelketako finalak uztailaren 20an jokatuko badira, Transerniokoak Adunako jaietan, hau da, abuztuaren 10ean.

↓ Transernio pilota txapelketa

Benjaminak

Alkiza vs Asteasu 16-15
Azpeitia vs Andoain 16-11
Donostia vs Zizurkil 7-16

Alebinak

Lazkao vs Azpeitia 9-16
Andoain vs Altzo 9-16

Infantilak

Bidegoian-Tolosa vs Usurbil-Andoain 1-18
Zizurkil-Donostia vs Donostia-Alde Zaharra 18-15
Asteasu vs Altzo 8-18
Andoain vs Zizurkil 4-18
Lazkao vs Añorga 18-15

Kadeteak

Andoain vs Tolosa-Bidegoian 22-14
Zestoa vs Zizurkil 22-6

HURRENGO PARTIDAK

Hilak 13, larunbata, 10:00etan

Alebinak

Azpeitia vs Zizurkil
Zestoa vs Bidegoian-Tolosa
Zizurkil vs Añorga

Infantilak

Usurbil-Andoain vs Altzo
Zizurkil-Donostia vs Altzo
Azpeitia vs Zizurkil

Hilak 14, igandea, 10:00etan

Benjaminak

Alkiza vs Aduna
Tolosa-Bidegoian vs Zizurkil
Villabona vs Azpeitia

Infantilak

Oiartzun vs Lazkao
Amezketeta vs Ordizia

Irudia Ibarra



HILAREN 16AN, BILBON MOBILIZAZIOA

Jokin Aranalde iheslariari elkartasuna azaltzeko elkarretaratzea eta batzar informatiboa egin zuten herenegun Ibarra plaza. 60 lagun inguru elkartu ziren bertan. Aranalde Paueko epaitegitik egun horretan pasa zen, bere aurkako euroagindua duen harira. Erabakia uztailaren 16an plazara-

tuko dela azaldu zuen bere abokatuak, hau da, Jokin Aranalde Espainiaratua izango den ala ez. Ibaratik esan dutenez, uztailaren 16an, Bilbon mobilizazioa egingo da Frantziako kontsulatuaren aurrean, eta 12:00etan bertara joatea eskatu dute, Bilboko Iparragirre kalera, hain zuzen ere. A.I.

Imersoko oporraldi programan izena emateko epea zabalik

Alegiarrek udaletxera joan behar dute apuntatzera, eta horretarako azken eguna ostirala da

A. Imaz Alegia

Alegiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik azaldu dutenez, Imersoko oporraldi programan izena emateko aukera hilaren 12an, ostiralean, amaitzen da. Aurrez Imerson dauden herritarrek ez dute izenik eman behar, deialdia baldintzak betetzen hasi berriak diren herritarrentzat baita.

Bete beharreko baldintzak ondorengoak direla azaldu dute udaletik: 65 urte beteta izatea; Sistema Publikoko Pentsioen jubilazio pentsionista izatea; 55 urtetik gorako alarguntasun pentsionista izatea; 60 urtetik gorako

aurrejubilatuzko, elbarritasuneko edo beste pentsio moten onuradun izatea, edo pentsionisten ezkontide, edo izatezko bikoteek laguntzaile moduan parte har dezakete. Azken hauei baldintzak ez zaizkiela eskatuko gaineratu dute Alegiako Udaleko Gizarte zerbitzuetatik.

Bidaia hara eta hona

Oporraldi programa 2013ko urrian hasi eta 2014ko ekainean amaituko da. Denboraldi honen barruan, mota desberdinetako bidaetan parte hartzeko aukera izango dute Imersoko kideak. Txango batzuk kultur ekimenen inguruak izan ohi dira, eta beste bidaia batzuk astebetekoak, hamabostaldikoak edo hilabeteak, nahiz eta urtero, egitaraua berritzen joaten den. Alegian, jada hainbat herritarrek izena eman dutela azaldu dute Gizarte zerbitzuetatik.



ALEGIAKO UDALA

GUREAN EZ DA BETI JAI
BAINA BADIRA MILA MOTIBO
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA
GUREKIN EZ DAUDENAI

ONDO PASA FESTAK!!!

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • www.alegia.net

Tolosako Udalak Iurreamendi egoitzaren ondoko lurretan egokitu dituen 81 baratzeetan lanean hasteko moduan daude esleipendunak; ikastaroak jaso dituzte, eta dagoeneko batzuek landatu dituzte lehen barazkiak.

Baratzeak bizia hartzen hasi dira

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Udalak esleitu ditu dagoeneko Iurreamendi egoitzaren ondoko zelaietan egokitutako 81 baratzeak. Astelehenetik, tolosarrak hasita daude bizia ematen baratzeei. Taldeka banatuta jaso dituzte ikastaroak, eta saio teorikoaz gain, praktika batzuek ere egin dituzte. Behin ikastaroa eginda, lur saila eta etxolako giltza jasoak dituzte.

Tolosako Baratze Parkea Kutxa Ekoguneak bultzatutako proiektua da. Baratze Parke Sareak webgune bat izango du, eta erabiltzaileek informazio guztia eskuragarri izango dute: aholku praktikoak, ikastaroak, ekimenak, argazkiak, ... Barazkiak modu ekologikoan ekoiztuko dira, eta informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute. Erabiltzaileek etxolan izango dute materiala, eta ureztatzeko hiru aska prestatu dituzte. Oraindik, eguraldi txarra tarteko, lan guztiak ez dituzte amaitu, baina datozen egunetan bukatuko dituzte.

Denera 139 lagunek eman zuten izena, eta horietatik 33 baztertuak izan ziren baldintzak betetzen ez zituztelako. 81 baratze esleituak daude, eta 16 pertsona itxaron zerrenda geratu dira. 33 langabetu daude, horietatik 15 emakumeak dira eta 18 gizonezko. Gainerako 42etatik, 24 dira gizonezkoak eta 18 emakumeak.

«Aukera polita»

Pasa den astean egin zuten ikastaroa, esaterako, Josu Otaño, Kris Vazquez eta Gorka Abazgoitiak. Lehen egunetik lur saila prestatzeko lanetan ari dira, eta aho batez adierazi dute «oso gustura» daudela.

Ez dute inoiz baratzerik izan eta udalak aukera polita eskaini dietela adierazi dute: «Orain lurra egokitzen aritu gara, landare-



Baratzen erdian etxola egin dute, eta erabiltzaileek bertan izango dute materiala. E. MAIZ

ak landatu ahal izateko», azaldu dute. Lur zati batzuk lehorragoak eta gogorragoak daudela diote, eta harriak kentzen ere aritu direla esan du Vazquezek, baina «ez dugu kexatzeko aitzakiarik».

Denbora pasa, izerdia bota eta eguzkia hartzeaz gain, aurtengo udan lehen letxuga, piper edo tomateak jatea espero dute.

Iurreamendi egoitzan dauden helduek ere bizipoza nabaria izango dute aurrerantzean. Jendearen joan-etorriaz gain, baratzeen itxura aldatuz gerozko aukera izango dute. Hizketarako aukerarik ez zaie faltako, eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sortzeko baliagarria izango da. Hirurek jaso dituzte bizilagun helduen gomendioak, zer eta nola egin behar duten azalduz. Atxurra hartzera ausartu denik ere izan dela kontatu dute.

Egun batzuk aurrerago, bilera egingo dute erabiltzaile guztiak baratze parkearen erabilera koordinatu ahal izateko.



Bi baratze prestatu dituzte ezinduentzako, eta lau baratze irabazi asmorik gabeko elkarrekin. E. MAIZ



Otaño, Abazgoitia, Vazquez eta honen semea, baratzetan. E. MAIZ



Landareak ureztatu ahal izateko hiru aska prestatu dituzte; landatu dituzte barazkiak toki batzuetan. E. MAIZ

«Langileak etsi eta enpresak eginiko eskaintza onartzea da euren asmoa»

Zizurkilgo Huyck Wangner-eko jabeek epaiketara atzeratzea lortu dute; asteartean zehaztuko dute data

Iñigo Terradillos Zizurkil

Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginek herenegun zuten Bilbon, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian 74 langile kaleratzeko erregulazio dosierraren aurkako epaiketara. Azkenean, baina, hura burutu beharrean, enpresaren argudioei esker, atzeratzeko erabakia hartu du epaitegiak. Datorren asteartean, hilaren 16an zehaztuko da epaiketaren behin betiko data. Mikel Zabaleta ELA sindikatuko metalaren Tolosaldeko arduradunaren arabera, «enpresak posizio estrategiko bat hartu du trabak jarritz prozesu guztia atzeratzeko, eta horrela langileak nekatzeko. Bere eskaintza onartzea da asmoa».

Prozesua atzeratzeko arrazoia zitazioak «zuzen ez egotea» izan da, taldeko enpresak ez baitzuten, antza, zitaziorik jaso. Zabaletak azaldu duenez, salaketak taldeko enpresa guztien aurka sartu dituzte: «Estatu Batuetako multinazionalaren aurka, Alemaniako enpresaren aurka, hemengo enpresaren aurka... orotara, 27 salaketa». 27 zitazio horiek Donostian Huyck Wangner-ek duen bulego-iristen zirenean, ordea, bertakoek bakarrik hartzen zutela dio Zabaletak, «hemengo lantegiaren izenean iristen zena», alegia.

ELAko ordezkararen ustez, «oneoro multinazionalaren parte direnaren irudia eman dute, baina, gero esaten dute ez direla enpresa talde horren zati». Zabaletak dioenez enpresaren asmoa Zizurkilgo lantegia itxi, eta Donostian bulego txiki bat irekitzea izan da: «Aipatu behar da, negoziatzen hasi aurretik Donostia-



Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginak, epaiketaren aurretik eginiko azken elkarretaratzean, Tolosan. ir.

ko bulegoa martxan jarri zutela, agerian geratzen delarik euren negoziatzeko borondate eza. Komertzialki, euren egunerokotasunean enpresa talde moduan funtzionatzen dute. Euren Amara auzoko bulegora joanez gero, ikus daiteke sarreran nola jartzen duen bai Xerium bai eta Huyck Wangner ere. Enpresa talde horren delegazioa da, beraz». Horrela funtzionatzen du, antza, arlo guztietan, batean ezik: «Notifikazioak iristen zitzaizkienean esaten zuten beraiek ez zirela Xerium etxearen parte, beraiek Zizurkilgo lantegiaren parte baino ez zirela». Zabaletaren arabera, aitzaki moduan erabili dute Estatu Batuetako agintariak ez diete la baimenik ematen gutun horiek euren izenean hartzeko.

Enpresaren jarrera

Gainera, ELAko ordezkararen arabera, enpresaren «fede txar hori» nabarmen azaleratu da herenegungo bistan: «Epaitegiant bertan, epaileek ere, behin baino gehiagotan eman zuten aditzera bazekitela zertara jokatzeko ari ziren, eta saiatu ziren erraztasunak ematen ez atzeratzeko epaiketara, enpresakoei eskaintza desberdinak eginez. Era berean, esan zie-

ten jende asko zegoela epaiketaren zain, eta bitartean sufrizten, beraz eskatu zieten zailtasunik ez jartzeko, eta gutunak emateko enpresari».

Enpresaren abokatuak argi adierazi zietela euren nahia ere gehitu du Zabaletak: «Bista amaitu zenean euren abokatuena ger-



Epaileek ere aditzera eman zuten bazekitela enpresa zertara jokatzeko ari den»

MIKEL ZABALETA
ELAko metalaren arduraduna

turatu nintzen haserre, eta esan nien egiten ari zirenekin langileen sufrimendua areagotuko zutela. Enpresak eskaintakoa onartu behar dutela langileek erantzun zidaten».

Bada, horrek guztiak epaiketara sei, zortzi edota urtebete atzeratzea ekar dezakeela uste dute: «Oso posible da azkenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusitik eskatu behar izatea Estatu Batuetako epaitegi bati, handik zitazioa egiteko, eta ondoren hona bueltatzeko zitazioa hartu

du tenaren ziurtagarria». Bitartean, asteartean dute berriro hitzordua Auzitegi Nagusian, eta egun horretan esan beharko dute, ea lortu duten estatubatuarren baimena zitazioak hemengo bulegoan jasotzeko. «Borondatea izango balute, eta zitazioak jaso dituztela esango balute, uztailaren bertan egin ahalgo litzateke epaiketara. Baina, guk badakigu ezetz esango dutela, eta hau guztia atzeratzen utziko dutela», dio Zabaletak. Baietz esan ala ezetz, asteartean finkaturik geratuko da data.

ELAko ordezkararen arabera, «honek guztiak jartzen du begibistan langileak oso modu desorekatuan ari direla borrokan enpresariaren aurka, enpresariak ia nahi dutena egin baitezaket». Horregatik, erakundeek babes irmoa eskatzen dute, beste behin: «Bilerak egin ditugu, baina euren aldetik ez dugu pausorik ikusi». Bestalde, langileek «haserre, amorruta eta inpotentzia» sentitzen dutela azaldu du, urte erdi baitaramate borrokan. «Ez daude etsita, baina nekatuta bai, eta horrelako jokabideek asko samintzen dute. Baina, hori bai, borrokan jarraitzeko borondateak irmo jarraitzen du».

→ Laburrak

Pintxo potea, bihar Berastegiko tabernetan

BERASTEGI Pintxo potea egingo dute bihar Berastegin. Herriko tabernek, hau da, Zelaik eta Kakok, Urepele elkarteak eta udalak antolatuta egin ohi dute pintxo potea. 19:00etan hasiko da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Silo bolen bilketa egingo dute datorren ostegunean

ELDUAIN Silo bolen bilketa datorren ostegunean, uztailaren 18an egingo dute Elduainen. Bada, udalak adierazi duenez, ohiko moduan, bezperan, gauean utzi behar dira ohiko lekuetan, biltzaileak aurkitu ditzan.

Herri batzarra egingo dute bihar, batzar aretoan

BERASTEGI Udal taldeak VIII. herri batzarrera deitu ditu herri-tarrak. Bihar izango da, 21:00etan, udaletxeko batzar aretoan, eta ondorengo gaiak jorratuko dituzte: udalgintzako lehen bi urteetako balantzea; datozen bi urteetako egitasmoak; eta beste hainbat puntu. Herritar guztien partaidetza eta elkarlana eskatu du udalak.

Festa batzordea asteazkenean, Urdelarren

ELDUAIN Herriko festak antolatzeko bilera asteazkenean egingo ohi dutela adierazi dute udaletik. Asteazkenean, Urdelar biltokira gerturatu daiteke, 21:30ean, festen antolaketa parte hartu nahi duen herritar orok.

Herriko jaietako afarirako txartelak salgai daude

BERASTEGI San Lorentzo jaietako herri afarirako txartelak salgai daude dagoeneko. Urepele elkarteak, Zelai tabernan, Basurde elkarteak eta udal-txetan daude salgai.

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JOXEPA ARSUAGA NAGUSITEGI

(Joakin Goikoetxea-ren alarguna)

2013ko uztailaren 10ean hil zen.

- Goian bego -

Haren ariaren zuzendaria: Joxi Eguzkitza; seme-alabak: Loren eta Agustin Goikoetxea (†), Paki eta Pedro Etxezarreta, Karmen eta Javier Adrian, Josemari eta Andoni Alonso, Luis eta Loreto Gil, Damian eta Nekane Mitxelena, Imanol eta Karmele Pagola; anai-arrebak: Fermin (†), Pakita (†), Luziano (†), Milagros eta Manolo (†), Pili eta Andres (†); ezkon anai-arrebak, bilobak, bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaldeak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GURU OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN UGARTEKO ERROSARIOKO ANDRE MARIA parroki elizan, GORPUBA bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

UGARTE-AMEZKETA,

Helbidea: Ugarte-aundi Baserria

2013ko uztailaren 11



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK**



Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIK

■ **Aiztondo.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, Larraul, Alkiza, Zizurkil eta Adunako erretirodunek irteera egingo dute Bilbora. Bilbo ezagutzeaz gain, bertan bazkalduko dute, eta arratsaldea libre izango dute. Uztailaren 23an izango da, eta izena emateko epea hilaren 16an amaituko da. Izena emateko, 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu behar da, eta 26 euro ordaindu behar da.

■ **Tolosa.** Oinkari dantza taldeak eta Hika antzerki taldeak, *Itsasoaren emazteak* ikuskizuna estreinatuko dute, ostiralean, Leidor antzokian. 22:30ean hasiko da, eta sarrerak www.kutxasarrerak.net helbidean eskuratu daitezke.

■ **Tolosa.** Hilaren 18an, ostegunean, *Euskara eta hizkera Sexista* hitzaldia eskainiko du Irene Arrarats *Berria* egunkariko euskara arduradunak. 19:00etatik 21:00etara izango da Tolosako kultur etxean. Parte hartu nahi duenak izena ematea komeni da, berdintasuna@tolosakoudala.net helbidean.

elektronikora idatziz edo 943 67 03 83 telefono zenbakira deituz.

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarateak eskalada ikastaroa antolatu du hilaren 15, 17, 19 eta 20rako. 19:00etatik 21:00etara izango da. Izena, 688 69 86 42 zenbakira deituta eman behar da.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zinema aretoan Zine foruma izango da, jatorrizko bertsoan. 19:15ean eta 21:45ean, *Turistas* ikusi ahal izango da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

■ **Leitza.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



LURPERATZEAREN LANAK, AURRERA

Tolosako Larramendi auzoko errepide nagusiaren lurperatze lanak aurrera doaz. Dagoeneko hartu du errepidearen lurperatzeak behin bukatuta izango duen itxuraren antza. Eraikin berrien arte-

an izango den plazaren urbanizazio lanak martxan daude. Tolosako Udalak aurreikusten duenez, urria ingururako urbanizazio lan guztiak amaituta egongo dira. IGL

Egin HITZAren HARPIDEDUN
ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

Barrenetxe
www.barrenetxe.com
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza

KARIBera
joan nahi al duzu?

Maukarekin
Karibera doan joan zaitezke!
Izena eman hemen eta parte hartu Karibera astebete doan joateko zozketan.

zozketa.mauka.eu

berrie

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

ITSASOAREN EMAZTEAK
OINKARI Dantza taldearen eta HIKA Teatroaren eskutik

Uztailak 12 • Ostirala, 22:30ean Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko: **943 65 56 95** edo tolosaldea.hitza.info

hitza